

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2025)

*euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko
gradu- eta master-amaierako lanak saritzeko*

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko gradu- eta master-amaierako hamar lan saritzeko deialdia argitaratu zuen martxoan. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa aukeratu izana saritzea da deialdi honen helburua.

Denera, lau eskaera aurkeztu dira deialdi honetan, gradu-amaierako bi lanen egitasmoekin eta master-amaierako beste bi lanen proposamenekin batera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikerketaren helburuen egokitzapena Mintzolak zehaztuta dituen iker-lerroetara.
- GRAL/MALen kalitatea: ikerketa-gaia eta helburua ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatua egotea. Lana argi eta ondo idatzita eta egituratua egotea.
- GRAL/MALen garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan ildoak irudikatzea.

Epaimahaiak ondoko hiru egitasmoak saritzea erabaki du:

1. ***Antzerkia eta adierazkortasun baliabideak uztartzeko proposamen didaktikoa***
Egilea: Ines Marguerite Azkarate Etxeberria
2. ***Euskararen erabilera ikaskuntza gidatuko espazioetan eta zirkulazio libreko eremuetan: Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako kasu-azterketa bat***
Egilea: Libe Miner Astaburuaga
3. ***Hernaniko hizkeren analisi fonologiko bat***
Egilea: Andoni Rey Ortiz

Bilbon, 2025eko maiatzaren 29an.